

ADINGABEEN ZENTROETARAKO GIZARTE-HEZITZAILEAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko eskakizunak:

- Gizarte Hezkuntzako Unibertsitateko Gradua
- Hizkuntza. Euskarako hizkuntza-eskakizuna. Balioetsi egingo da
- Ezinbestekoa izango da lanpostu hutsaren lurraldean bizitzea (Araba edo Gipuzkoa)
- Gutxieneko esperientzia: gomendatu egiten da. Ez da ezinbestekoa
- Hitzarmenaren arabera soldata

Azalpena

Babesten Taldearen barruan adingabeen sektorea kudeatzen duen erakundeak BABESTEN GIPIUZKOA du izena.

Gaur egun, umeen, gazteen eta inklusioaren arloko baliabideak ditugu Gipuzkoako lurraldean (Foru Aldundiarekin itundutako baliabideen bitartez) nahiz Arabako lurraldean (AFArekin eta Gasteizko Udalarekin itundutako baliabideen bitartez), eta zenbait mailatan ematen ditugu zerbitzuak:

- Familia-jarduketan espezializatutako programak eta balioespen psikosozialak.
- Babesik ez duten adingabeentzako egoitza-harrerarako sarea.
- Programa espezializatuak.
- Larrialdietako harrerarako programak...

Lanpostuko eginkizun nagusiak

Babesten Taldean, gizarte-hezitzaile bila gabiltza, adingabeen arretan ditugun profesionalen taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, Adingabeen Arretarako Zerbitzuko arduradunaren menpean:

Zerbitzuko antolakuntzari dagokionez:

- Lan-planetan zehaztutako zereginak egitea.
- Erabiltzaileei emandako zerbitzuan gertatzen diren gorabeheren berri ematea horretarako zehaztutako formatuan eta euren arduradunari haien berri ematea.
- Erabiltzaileen prozesu patologikoak eta intimitateko gaiak isilpean gordetzea.
- Euren jardueraren bitartez sortutako informazioa erregistratzea zerbitzuko koordinazioak adierazitako eta Kalitate Eskuliburuan zehaztutako formatuetan edota tresnetan.
- Oro har, lehenago zehaztu ez diren arren agintzen dizkieten jarduera guztiak egitea, betiere, haien lanbidearen zein prestakuntza teknikoaren arabera badira eta lehenago adierazitakotakoarekin zerikusirik badute.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

Datuen Babesari buruzko Araudi Orokorren arabera (EB 2016/679), jakinarazi egiten dizugu borondatez eman dituzun datuak BABESTEN TALDEAK tratatuko dituela, enplegu-eskabideak kudeatzeko. Horretarako, zure datuak sartuko ditu lan-poltsan eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan, erakundeko lanpostuak betetzeko. info@grupobabesten.eus

Egin beharreko zereginak instituzio kontratugileek adingabeen arretarako baliabideen esleipenak arautzeko asmoz zehaztutako baldintzen orrietan islatuko dira.

Oro har, honako hauexek izango dira gizarte-hezitzaileen eginkizunak:

- Informazioa ematea.
- Gizarte nahiz hezkuntza arloko eta arlo psikozialeko jarduketa garatzea: hezkuntza-arloko edota arlo psikozialeko jarduketa.
- Jarraipena balioestea.
- Gizarte-laguntasuna ematea. Tutoretza ematea.
- Bitartekaritza/Bitartekotza garatzea.
- Banakako arreta ematea, umeak txikiak direnean.
- Beste zeregin osagarri batzuk egitea; esate baterako, mantenua.

Zerbitzuko langileei dagokienez:

- Zentroko arduradunen menpean dauden langileak direnez, haiekin lan egitea agintzen dizkieten zeregin guztietan, artatutako adingabeei eta haien ingurukoei ahalik eta arreta onena emateko.

Eskaintzen duguna

- Lanaldi osoa eta lanaldi partziala.
- **BABESTEN GIPUZKOAREN bidez Araban eta Gipuzkoan daukagun eragin-eremuan bertan.**

Babesten Taldeak egoitza-baliabideak kudeatzen ditu Gipuzkoan, zerbitzuen maila desberdina da eta adingabeen profil bereziak dituzte helburu. Honako hauexek dira gaur egun:

- **Aixola Adingabeen Zentroa**
- **Uribe Adingabeen Zentroa**
- **Argiñene Adingabeen Zentroa**
- **Erreterria Adingabeen Zentroa**

Babesten Taldeak egoitza-baliabideak kudeatzen ditu Araban, zerbitzuen maila desberdina da eta adingabeen profil bereziak dituzte helburu. Honako hauexek dira gaur egun:

- **Sansoheta Adingabeen Zentroa**
- **Ibaia Adingabeen Zentroa**
- **Gizarte eta Hezkuntza Arloko Adingabeen Zentroak**
- **Familia Jarduketan Espezializatutako Programa (FJEP)**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa